




1. Zenbakia. 1. Seihilekoa, 2017

Ornitho Berriak

www.ornitho.eus



1. Zenbakia

1. Seihilekoa, 2017

Ornitho Berriak

www.ornitho.eus

Atalak

- 4 Aipamen nabarmenduak
- 10 Zer berri
- 11 Laster ornithon...
- 13 Proiektuak
- 14 Protagonistak
- 16 Nire mini-gida



www.ornitho.eus





www.ornitho.eus



ORNITHO BERRIAK

1. Zenbakia. 1. Seihilekoa, 2017

ISSN: 2530-9358 Donostia / San Sebastián

Argitalpen Batzordea: Juan Arizaga, Maite Laso, Nere Zorrozuza, Beñat Díaz

Argitaratzailea: Sociedad de Ciencias Aranzadi. Donostia - San Sebastián
(<http://www.aranzadi.eus/category/ornitologia>)

Esteka: http://www.ornitho.eus/index.php?m_id=20016&langu=es

Kontaktua: ornitho@aranzadi.eus

www.ornitho.eus plataforman laguntzen duten erakundeak



Aipamen nabarmenduak



A. Leiza

Balea handi

bat Getarian



Pasa den neguko behaketa nabarmenetako bat zere arruntarena *Balaenoptera physalus* izan zen. 15-17 metroko luzerako itsas ugaztun hau egun bat eta erdi egon zen Getariako portuan, ikusmin handia sortuz aditu eta herritarren artean. Balea 2017ko urtarrilaren 2an ikusi zen eta AMBAR

elkarteko kideek (www.ornitho.eus-ekin kolaboratzen duen elkarte) egin zuten indibiduoaren jarraipena. Oso argal eta igeri egiteko zailtasunekin ikusi arren, urtarrilaren 4an portutik ateratzen laguntzeko erabakia hartu zen. Behin kanpoan zela, zerea igerian hasi zen eta ez genuen berriz ikusi.



Kaio berezien negua



Negua garai aproposa da kaio espezie bereziak aurkitzeko Kantauri Itsasoan. 2017ko lehenengo hiruhilekoan zehar kaio espezie arraro batzuk ikusi dira euskal kostaldean

Ipar kaioa

Larus hyperboreus

Espeziea euskal kostaldeko zenbait puntutan ikusi da: Txingudin, Zarautz-Getarian eta Ondarroako portuan. Guztietan ale bakarra ikusi zenez, ezin da baztertu indibiduo bakarra izatea. Aurreneko

aipamena urtarrilaren 15ekoa da (E. Azkue, Getaria) eta azkena martxoaren 12koa (J. C. Andrés, Ondarroa).



Kaio hauskara amerikarra *Larus smithsonianus*

Europako kaio hauskararen antzeko espeziea, azken hau gure kostaldean ohikoagoa da. Aipamen guztiak ale batenak dira, Ondarroako portuan kokatua, urte batzuetatik hona negua leku honetan pasatzen duena. 2017ko lehenengo hiruhilekoan askotan ikusi da urtarrilean eta otsailean zehar. Azken aipamena otsailaren 14koa da (S. Alarcón).



Delaware kaioa *Larus delawarensis*

Ameriketako kaio espezie hau urtetik urtera ohikoagoa da gure kostan ikustea, gutxitan ikusten jarraitzen dugun arren. Aurtengo neguan ale eder bat ikusi ahal izan dugu Getxo inguruan. Azken aipamena martxoaren 14koa da (S. Alarcón).

Kaspioko kaioa *Larus cachinnans*

Espeziea hona hedatu izanak edo behatzaile talde handiago batek hobeto identifikatzeak lehen bitxikeria zena gaur egun gero eta kontu ohikoagoa bihurtu du, kaspioko kaioa gure lurraldean ikustea. Euskal kostaldean agerpen urria baina erregularra du. Aipamen ezberdinak ditugu, normalean ale bakartienak eta lurraldearen ekialdean, Txinguditik Ondarroara. Ale pare bat barnealdean lokalizatu ziren, Gasteizko Salburua hezegunean (martxoak 2, L. Zurikarai) eta Ulibarri-Gamboa urtegian (martxoak 28, S. Alarcón).

Groenlandiako kaioa *Larus glaucoides*

Artikoko kaio espeziea da hau, arraroa gure kostaldean. Bilboko itsasadarrean ikusi zen ale bat (azken aipamena martxoaren 9an, S. Alarcón) eta beste bat Txingudiko paduran (I. Gutiérrez).



Ezohika

bisitari txikiak



Goian aipatu ditugun espezie handiekin batera, 2017ko lehenengo hiruhilekoan espezie arraro batzuen aipamenak izan ditugu

Batetik, Bizkaian Richarden bisbita *Anthus richardi* talde txiki bat ibili da. Aurreko urteko urrian bi aipamen egon ziren, aurrenekoa Ziortzan eta bigarrena Barbadun ibaiaren estuarioan. Gerora, espeziea Sopela inguruan ikusi zen. Azaroaren 13tik otsailaren 18ra arte espeziea inguru hartan behatu zen, aldiko gehienez hiru ale ikustea lortuz. Bestalde, Irun inguruan txio marra-biko bat *Phylloscopus inornatus* aurkitu zen abenduaren 24ean eta inguru horretan ikusi zen urtarrilaren 16ra arte. Espeziea Euskadiko beste leku batzuetan ere behatu zen udazkenean eta neguan zehar.

Txioekin jarraituz, beste aipamen interesgarri bat txio txistulariarena dugu *Phylloscopus sibil-*

trix, espezie arraroa da inguru hauetan. Gure lurraldean udaberrian ikusten da, ugaltzeko Europa erdialdera eta iparraldera doala. Aipamen batzuek erakusten dutenez baina, baliteke noizean behin Iberiar penintsularen iparraldean ugaltzea. Aurten, 2016an gertatu bezala, espeziea Artikutzako eremu batean detektatu da behin baino gehiagotan (J. Rodríguez; P. Oyarzabal; D. Santamaría) eta litekeena da inguru horretan ugaltzea. Umatze zeinu garbiak ikusiko balira txio txistulariaren ugalketa aipamen hegoaldekoena izan liteke.



Begi berdedun *burruntzia*



Begi berdedun burruntzia *Aeshna isocetes* eremu mediterraneanarrean eta Afrika iparraldean banatzen da gehien bat. Gure lurraldean espezie arraro moduan sailkatzen da aipamen bakanekin. Udaberri honetan ale bat ikusi zen Lemoizko Urbietan (J. Ruiz). Aurrez Bizkaian eta Araban ikusitako espezie bat denez ezin dugu baztertu burruntzi ezohiko honen aipamen berriak egotea.



shutterstock

Iritsi da gure artera enara *ipurgorria*



Enara ipurgorria *Cecropis daurica* udaldiko espezie bat da eta Europa eta Asia hegoaldeko herrialdetan ugaltzen da. Europaren kasuan espezie mediterranearra da baina bere banaketa eremua iparraldera zabaltzen ari da. Honela, eremu atlantiarrean espezie honen aipamenak gero eta ohikoagoak dira eta kolonizazio prozesu batekin lotzen dira; ikerlari batzuek klima aldaketarekin uztartzen duten prozesua. Aurten ale batzuk ikusi

dira Euskadiko txoko ezberdinetan. Guztien artean aipagarriena Muskizen habi aktibo bat izan da (A. Rodríguez, beste batzuen artean). Espezie honen habiak oso bereziak izaten dira: esfera erdi baten forma izaten du eta tunel bat sarrera moduan. Arrek eta emeek eraikitzen dute lokatzezko bolatxoak erabiliz. Bikoteek umatze lekua urte batetik bestera mantentzen dutenez Muskizekoa ugalketa kokaleku egonkor bat bihurtu daiteke.

Zer berri



shutterstock

Izotz- ahatearen alea, Euskadin ikusi daitekeen ezohiko espeziea

Atal berri bat menuan

www.ornitho.eus menuak atal berri bat du, www.ornitho.eus-ri buruz” izenekoa. Atal honen helburua atariaren gaineko informazioa eta dokumentazioa ematea da. Plataformaren alde legalaren gaineko kontuez hornitzea espero da, bai eta faunaren behaketan jarraitu beharreko kode etikoaren informazioaz ere.

Ezohiko behaketen formularioa

Ezohiko Behaketen Batzordea sortu ondoren, Euskal Herriko Batzorde Ornitologikoari lotua dagoena (informazio gehiagorako ikusi **www.ornitologia.eus**), ezohiko behaketen egiaztatze sistema jarri dugu martxan ornitho.eus plataforman. Orain, ezohiko behaketa baten aipamen bat sisteman sartzen duzunean alerta ikur batekin azalduko da, Batzordeak aipamena egiaztatutakoan soilik kenduko dena. Gainera, ezohiko behaketa bat sartzen duzunean formulario berri bat azalduko zaizu, aipamena ebaluatzeko erabiliko dena. Formulario hau bete gabe utz dezakezu, baina bereziki gomendatzen dugu betetzea egiaztatze prozesuan zalantza gehien sor ditzaketen aipamenekin.

Laster ornithon...



J. Arizaga

Amiamoko zuria espezie kolonial bat da

Hegazti kolonialak

Laster tresna berri bat jarriko dugu erabilgarri kolonia batean ikusten diren bikote kopurua zehazteko. Informazio hau formulario estandarraren osagarri moduan azalduko da eta soilik hegazti kolonialekin aktibatuko da.

Ornitho-ren nazioarteko batzordea azaroan elkartuko da berriz



Rochefort, Frantzia antolatu zen ornitho bileraren ordezkariak

Urtero, ornitho atari guztien ordezkariak elkartu egiten gara proiektua hobetzeko intentzioarekin. Hurrengo bilera Bartzelonan izango da, azaroan. Ezarrita dauden lekuetan Ornitho atariak liderrak dira hegaztien behaketen erregistroan edo beste animalia taldeenetan. Guztira iaz, ornitho atari guztietan 18 milioi aipamen erregistratu ziren eta zenbaki hau urtetik urtera %17,5 handitzen ari da. Ornitho erabiltzen dugunok 45.000 kideko familia osatzen dugu Europa erdian zehar banatuta.



Hegazti janlekuetan Kaskabeltz handia espezie arruntenetariko bat izaten da

www.ornitho.eus txikienei gerturatuz


Laster hegaztien janlekuetan eginiko behaketentzako modulu berri bat martxan jartzea aurreikusten da. Moduluak janleku bati alta ematea ahalbidetuko du (honek janlekuen ezaugarrien arabera analisiak egitea bideratuko du eta Euskadiko janlekuen sare bat osatzeko aukera emango du). Bestalde, atarian datuen sarrera espezie ohikoenetara mugatuta egongo da eta irudien bidez lagunduko da espezieen identifikazioa errazteko. Modulu hau irekita dago dagoeneko Katalunian eta Akitanian.



Oporretan eraman ezazu “ornitho” poltsikoan Naturalist-ekin

Badatoz oporrak eta gutariko askok denbora fauna behatzeko baliatzen dugu. Gogoan izan, joaten zaren lekura joaten zarela, Naturalist aplikazioarekin aipamenak zure mugikorrean sartu ditzakezu. Biolovision-en web orritik uneoro ikusi ahalko dituzu behaketak eta, honela, zure bidaia-koaderno propioa osatu dezakezu.

Proiektuak



EHE: Euskadiko Hegazti Habiagileen Atlasa

Historian lehenbizikoz, Euskadik hegazti habiagileen atlas bat izango du. EHE proiektuak, 2016. urtean hasi zena, bertan habia egiten duten espezie guztiak zehaztea du helburu, 5x5km-ko lauki-sareko eskalan. Honekin, espezie habiagileen banaketa ezagutuko dugu orain arte inoiz ikusi gabeko zehaztasunarekin.

Zentsuak 2019ra arte egingo dira, urte hau barne hartuta. Bertan parte hartzera gonbidatzen za-

itugu, lauki-sarearen zati batean laginak hartzeko konpromisoa hartuz (horretarako eskualdeko koordinatzaileekin jarri beharko zara harremanetan) edo zuzenean gure atarian aipamenak sartuz, atlas kodea gehituta. Proiektuaren gaineko informazio gehiago eskuratu nahi baduzu, Euskal Batzorde Ornitologikoaren web-orrialdean gai honi eskainitako atala bisitatu dezakezu: www.ornitologia.eus.



habios HABIOS proiektua: lagundu okilen laginketan Euskadin!

Interreg Habios proiektu piriniarraren barruan, okilen banaketa geografikoa hobeto ulertzeko, herriarren eskutik jasotako informazioa erabiltzeko egitasmo bat proposatu da. Informazio honek, gainera, Pirinioetako bi aldeetako atlas ornitologikoetako informazioa eguneratzeko balioko du.

Euskadiren kasuan, www.ornitho.eus atariaren bitartez, talde honetako hegaztien behaketen informazioa zabaltzeko deia egiten da. Xehetasun gehiagorako plataformako albisteen atala ikusi.



Protagonistak



Nere Zorroazua

José Esparcia bere prismatikoekin Plaiaundin

José F. Esparcia da www.ornitho.eus plataforman aipamen gehien egin dituen erabiltzailea. Bere kurrikulumean 38.000 behaketa baino gehiago ditu, ia guztiak Plaiaundi Parke Ekologikoan eta inguruetan eginak. Berarekin elkartu gara bere bizipenen berri jakiteko.



- **Ornitologia duzu ogibide?**

- Ez. Ornitologo afizionatu bat naiz ni. Beti izango da gauza mordoa ikasteko.

- **Nola uztartzen dituzu hegaztien behaketa eta zure lana?**

- Goizean goiz etortzen naiz eta, ondoren, nire gauzak egitera joaten naiz.

- **Noiz hasi zinen hegaztien munduaz interesatzen? Nola aurkitu zenuen zaletasun hau?**

- Gazte-gaztetatik natura den guztia gustatu izan zait. Joten nintzen lekura joaten nintzela, beti inguruan nuen guztian jartzen nuen arreta, animaliak, txoriak ... dena. Arreta pizten zidan eta, apunterik batere hartu gabe ere, animaliak eta hegaztiak ikuste hutsa gozamina zen niretzat.

- **Nora joaten zara hegaztiak ikustera?**

- Batez ere Txingudi ingurua, Jaizkibel, Aiako Harriak ... Etxetik hurbilen dudana baita.



• **Astean zenbat aldiz etortzen zara Plaiaundira hegaztiak ikustera?**

– Gutxienez bost aldiz, gutxi gorabehera. Beti goizez, larunbat batzuetan izan ezik, egun horietan eguerdian etortzen bainaiz andrearekin paseatzera. Beti aprobetxatzen dut ikusitakoaren zerrenda bat egiteko.

• **Zer azpimarratuko zenuke leku honetaz?**

– Hain da leku txikia eta gaizki kokatua ... trenbidea alde batean, errepidea bestean, aireportua ezkerretan, errugbi zelaia (tira, ez dezagun horretaz hitz egin, tamalgarria ...) eta aurrealdean, badian, txalupak joan-etorrian dabilta etengabe. Hori guztia hor egonda ere, gauza asko ikusten da hemen.

• **Ba al dago bereziki gogoratzen duzun egunik?**

– Egia esan ez.

• **Nola ezagutu zenuen ornitho.eus plataforma?**

– Faune Aquitaine (www.faune-aquitaine.org) plataforman kolaboratzen nuelako ezagutu nuen [“ornitho” atariaren Akitaniako bertsioa]. Atari horretara bidaltzen nituen inguru honetako datu guztiak: Higer, Jaizubia, Plaiaundi, irlak eta hau guztia. www.ornitho.eus martxan jartzean atari hau erabiltzen hasi nintzen. Egia esan, nahiago dut nire behaketak plataforma honetara igotzea nire inguruko jendeak dagoenaren berri izan dezan. Jendeak behaketak ikus ditzan eta hemen zer topatu dezaken jakin dezan, hori laguntza bat da. Ondo dago zaletasun hau dutenek jakin ahal izatea zer dagoen hemen, ez du gauza berezia izan beharrik, egunerokoan zer dagoen jakitea asko da.

• **Zenbat urtez ibili zinen Faune Aquitaine-en elkarlanean?**

– Oraindik ere elkarlanean jarraitzen dut! Frantziara joaten naizenean informazioa atari horretan sartzen jarraitzen dut, esate baterako Hendaiara joaten naizenean. Badira 7 edo 8 urte atari horretan parte hartzen dudala.

• **Zein dira www.ornitho.eus atariaren onurak eta zergatik erabiltzen duzu?**

– Koadernoak eraman behar ez izatea eta dena informatizatuta edukitzea. Kontsulta sistemak nik nahi dudana filtroak erabiliz bilaketak egitea uzten dit eta hori oso eroso da. Lehen guztiaren erregistro bat ematen nuen koadernoetan data, ordua ... idatziz. Eta zer pasa zitzaidan? Bada koaderno guztiak kotxeo guanteran nituen gordeak, informazio mordoa, eta egun batean kotxea urez bete zitzaidan, tinta guztia nahi zen eta urteetako informazioa pikutara joan zen. Beste modu honetara, informazioa ondo gordeta gertatzen da. Gainera, balio gehiago du horrela, informazioa gordetzeaz gain besteekin partekatu dezakezulako.

• **Erabiltzeko erraza iruditzen zaizu?**

– Niretzat www.ornitho.eus plataforma erabiltzeko erraza eta eroso da. Kontsulta sistema bizkorra eta intuitiboa da.

• **Zergatik bultzatuko zenuke jendea www.ornitho.eus erabiltzera?**

– Lehen aipatu ditudan arrazoiengatik, koadernoekin ibili behar ez izateagatik eta besteekin informazioa partekatu daitekeelako.

• **Informazioa ordenagailu bidez sartzen duzu, probatu al duzu inoiz mugikorreko NaturaList aplikazioa erabiliz datuak sartzea?**

– Bai, probatu dut, baina niretzat erosoagoa da ordenagailu bidez egitea. Batzuetan kobertura falta zait eta nire mugikorrean oso astiro dabil. Gainera, interneteko bertsioan eskuragarri dauden zerrenda osoen formularioek asko errazten dute datuak sartzea. Azkenean, datuak kargatzea ohiko kontua bihurtzen da eta segituan dena ateratzen zaizu. Bidali eta listo. Mugikorrarekin, gainera, betaurrekoak jantzi behar ditut eta ez dut ondo ikusten pantaila argi asko badago ... horregatik egiten dut nik ordenagailuz, erosoagoa iruditzen zait. Gainera denboraz justu etortzen naiz.

• **Nola hobetuko zenuke www.ornitho.eus?**

– Ikusten diodan akats bakarra zera da, leku bateko behaketak bidaltzen direnean, Plaiaundikoak adibidez, eta aldi berean gertu dagoen beste leku batekoak bidaltzen badira, Jaizubiakoak esaterako, zerrendak gurutzatu egiten direla kontsulta-orrian [Menua: Behaketak: Azkeneko 2 egunak]. Adibidez, 15 aipamen azaltzen zaizkizu Plaiaundikoak, jarraian Jaizubiako beste batzuk eta jarraian, atzera Plaiaundiko gainerakoak. Nahiago nuke Plaiaundiko behaketen zerrenda osoa jarraian azaltzea. Ez dakit zergatik pasatzen den hau, baina arraroa da.

Nire mini-gida



A: *S. fonscolombii*; B: *S. meridionale*; C: *S. sanguineum*; D: *S. striolatum*. Autor: I. Mezquita

*Gaur egun www.ornitho.eus atariak
behaketak sartzeko 12 talde taxonomiko ditu*

Atarian behaketak sartzea, azken finean, espezieen identifikazio egokian oinarritzen da. Atal honek talde ezezagunak edo espezie zailenak identifikatzeko jakinmina pizten laguntzea du helburu.

Burruntziak eta sorgin-orratzak fauna behatzaileen artean gero eta interes handiagoa eragiten duen intsektu talde bat da. Bere identifikazioa, nahiko erraza, eta gure lurraldean aurki dezakegun espezie kopurua (ez oso handia), jarraipen programak martxan jartzeko animalia talde oso interesgarri bat bihurtzen dute. Izan ere, odonatu espezie batzuk hezegune eta erreka garbiekin lotzen dira, beraz hauen presentziak urak ondo kontserbaturik daudela adierazten du.

Oraingoan, gida txiki bat aurkezten dugu *Sympetrum* generoko espezieak identifikatzeko. Euskadin bizi diren buruntzien barruan eta intsektu hauen behaketa munduan sartzen ari direnen artean, *Sympetrum* identifikatzeko arazo gehienak sortu ditzakeen generoa da. Hala ere, ezaugarri batzuei arreta jarritz eta praktika apur batekin, gure artean hegan egiten duten lau espezieak erraz bereizi daitezke. *S. fonscolombii* eta *S. striolatum* gure artean ugariak dira. *S. sanguineum* eta *S. meridionale* ordea, urriagoak dira beraien distribuzioa mediterraneo isurialdeari lotuta baitago.

I. Mezquita eta J. A. Gainzarain, www.ornitho.eus atariko talde honen ikuskatzaileek, kode hau eskaintzen digute:

Espeziea	Begiak	Hankak	Toraxa	Abdomena	Hegoak
<i>S. fonscolombii</i>	Gorriak goitik, urdinak behetik	Beltzak lerro horiekin	Gorriak guneharrargiekin, batzuetan xehetasun urdinxkekin	Zilindrikoa, gorria bizkaraldean orban beltzekin S8 eta S9 segmentuetan	Orban azafranatuak, oinaldean ondo zabalduak. Pterostigmas ² horiak ertz beltzekin
<i>S. meridionale</i>	Marroi-gorriak goitik, berde-nabarrak behetik	Nabarrak, beltz gutxirekin	Marroi-gorriak denean. Suturak ¹ gutxi markatuta	Gorria, zilindrikoa baina pixka bat zabaltzen da azken segmentuetan	Oinaldean orbanik gabe. Pterostigmas ² marroi - gorriak
<i>S. sanguineum</i>	Gorriak goitik, Berdexkak behetik	Beltzak	Gorria horirantz joaten sabelaldean. Suturak ¹ oso markatuak	Mazo forman. Nabarmen zabalagoa azken segmentuetan. Alboetan orban beltzak ondo markatuta	Orban azafranatu arinak oinaldean, hautemanezinak ia. Pterostigmas ² marroi - gorriak
<i>S. striolatum</i>	Marroi-gorriak goitik, berde-nabarrak behetik	Beltzak lerro argi horixkekin	Banda gorriak eta horiak txandakatuta	Gorria, zilindrikoa baina pixka bat zabaltzen da azken segmentuetan	Orban azafranatu arinak oinaldean, hautemanezinak ia. Pterostigmas ² marroi - gorriak

¹ **Suturak:** Kutikula plaken artean dauden eta toraxa eratzen duten bereizketa lerroak.

² **Pterostigma:** Hegalen aurrealdeko ertzan duten koloretako orbanak.



www.ornitho.eus



aranzadi
zientzia elkartea